II. ATALA

## BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

### Ondarroako Udala

**Ondarroako Udaleko Arkitekto lanpostua oposizio-lehiaketa sistemaren bidez betetzeko deialdia eta hautaketa prozesua arautuko duten oinarriak onartzea.**

Ondarroako Udaleko Alkateak, 2023ko urriaren 6ko 2023/1247 Dekretuaren bidez, honako ebazpena eman du:

«*Bakarra:* Ondarroako Udaleko 2022ko Lan Eskaintza Publikoa Ondarroako Alkatearen 2022ko irailaren 23ko 2022/1031 Dekretu bidez onartu zen (2022ko irailaren 30eko 187. zenbakiko Bizkaiko Aldizkari Ofiziala). Bertan, Ondarroako Udaleko Arkitekto lanpostua atxikita dagoen plaza txertatu zen.

Apirilaren 2ko Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 21.1.g) artikuluak Alkateari aitortzen dizkion eskumenetan oinarrituta, honakoa

EBAZTEN DUT:

*Lehenengoa:* Ondarroako Udaleko Arkitekto lanpostua oposizio-lehiaketa sistemaren bidez betetzeko deialdia eta hautaketa-prozedura arautuko duten oinarriak onartzea, jarraian jasotakoaren arabera.

*Bigarrena:* Ebazpen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.»

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio-bideari. Interesatuek administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete zuzenean Administrazioarekiko Auzietako Bilboko Epaitegian, argitaratu eta hurrengo egunetik hasi eta bi hilabete baino lehen.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko Ondarroako Alkateari, argitaratu eta hurrengo egunetik hasi eta hilabete baino lehen. Hori eginez gero, ez dago administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkezterik harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena izan arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Ondarroan, 2023ko urriaren 6an.—Idazkaria, José Urraza Aldayturriaga

eek: BAO-2023a199-(II-4945)

**ONDARROAKO UDALEKO ARKITEKTO LANPOSTUA OPOSIZIO-LEHIAKETA SISTEMAREN BIDEZ BETETZEKO DEIALDIA ETA HAUTAKETA-PROZESUA ARAUTUKO DUTEN OINARRI ESPEZIFIKOAK, KARRERAKO FUNTZIONARIO IZAERAREKIN**

**Lehenengoa.—*Deialdiaren xedea***

Oinarri hauen xedea da 2022ko ekitaldiko Enplegu Publikoaren Eskaintzan sartzen den plaza bat jabetzan betetzea. Eskaintza hori irailaren 23ko Alkatetzaren 2022/1031 dekretu bidez onartu zen eta 2022ko irailaren 30eko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (187. zenbakia).

Hautaketa-prozeduraren objektu den lanpostuak ezaugarri hauek ditu:

— Plazaren izena: Arkitektoa; administrazio bereziko eskala, goi mailako teknikarien azpieskala.

— Lan-erregimena: funtzionarioa.

— Plaza betetzeko sistema: oposizio-lehiaketa librea.

— Azpitaldea: A1.

— Lanpostu kopurua: 1.

— Lanpostua: Arkitektoa (4.3 kodea).

— Eskatutako titulazioa: Arkitektoaren Unibertsitate Titulu Ofiziala.

— Maila: 29.

— Berariazko osagarria: 41.184,79 euro urteko.

— Hizkuntza-eskakizuna: 4, derrigortasun-data iraungita.

— Baldintzak: %20ko dedikazio berezia.

Hautaketa-prozedura oinarri espezifiko hauez gain Ondarroako Udalean karrerako funtzionario moduan sartzeko hautaprobetarako deialdien oinarri orokorrek ere arautuko dute, 2021eko maiatzaren 25eko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (97. zenbakia) argitaratuak.

**Bigarrena.—*Eginkizunak***

I. *Hirigintza*

— Hirigintza, planeamendua eta lurralde antolamenduaren inguruko gaien ardura bere gain hartu: planeamendu orokorra, planeamendu xehakatua, ordenantzak, gestioko dokumentuak, balorazioak… Partikularren sustapenekoak direnean, haien gaineko jarraipena eta dagozkion txostenak egin eta tramitazioaz arduratu.

II. *Lizentziak*

— Obra handien, eraispenen, lur sailen elkartze, zatitze eta banaketen eta erabilera lizentzien txostenen ardura.

— Obra txikien, ITE, jarduera eta irekitzeko lizentzien izapidetzean, udal arkitekto teknikoari laguntza tekniko eta urbanistikoa eman.

— Diziplina urbanistikoa: bere ardurapeko lizentzia edo obretan txostena egin, replanteoko akta sinatu, obrak ikuskatu, etab. Bere ardurapeko gaiekin lotutako arau-hausteak eta zigor espedienteak izapidetu, Idazkaritzaren lege-aholkularitzarekin.

III. *Obra publikoak*

— Udal sustapeneko obra handien kudeaketa: obra gauzatzeko proposatu, teknikoki zuzendu, proiektuen zuzendaritzaz arduratu, horiekin lotutako kontratazio prozeduren ardura izan, jarraipen programak, ziurtapenak, urbanizazioen harrera, proiektuen aldaketak, zigortzaileak, fidantza itzulerak, etab.

— Bere ardurapeko obretan beharrezkoak diren gainbegiraketak burutu, harrera akta sinatu, etab.

— Ikuskapenak burutu bere ardurapeko obretan.

eek: BAO-2023a199-(II-4945)

IV. *Ingurumena*

— Laguntza tekniko eta urbanistikoa eman udal arkitekto teknikoari, espedienteak aztertu, txostenak egin eta ikuskapenak burutu.

V. *Batzordeak eta aholkularitza*

— Udal Batzarrari teknikoki aholkua eman, hiri plangintza, kudeaketa eta diziplinari dagokionez.
— Hirigintza Batzordeari euskarri tekniko lanak eskaini, bertan-bertan eztabaidatuko diren eta bere ekintza-eremuan dauden gaiak azterketa, txosten edo kontsultarako prestatuz.
— Udal-aholkularitza eta herritarren edo udaleko kideen kontsultei erantzutea. Dagokion batzordeetara joan eta aholkularitza teknikoa eskaini.
— Idazkaritzan kudeatzen diren espedienteen lan teknikoa auzi errekurtsoetan, ondare erantzukizun espedienteetan, etab.
— Bere titulazioak ahalbidetzen dituen funtzioak bete.
— Saileko zuzendaritza bere gain hartu eta saileko funtzionamendu egokiaz arduratu (helburuak ezarri, giza baliabideak atxikitu, material eta ekonomikoak antolatu…).
— Saileko prozeduren normalizazio-lanak bultzatu eta bideratu.
— Sailaren urteko kudeaketa-planaren proposamena eta aurrekontu-proposamena landu eta horren jarraipen eta kontrola burutu.
— Saileko dirulaguntza eskaeren tramitazioen jarraipena egin eta hauek gainbegiratu. Bere ardurapeko espedienteei dagozkien dirulaguntza eskaeren tramitazioaz arduratu.
— Sailetik bideratzen diren erosketa eta kontratazioetan, arlo teknikoari dagozkion eginbeharrak gauzatu: baldintza teknikoen agiriak prestatu, kontratazio prozeduren aholkularitza teknikoa eskaini, kontratuen jarraipena eta kontrola burutu, gastuen kontrola eraman eta gainbegiratu, etab.
— Dagokion batzordeetara joan eta aholkularitza teknikoa eskaini.
— Udaleko Koordinazio Batzordean parte hartu.
— Beste erakunde, entitate, profesional eta antzeko batzuekin bere lana burutzeko beharrezkoak diren harreman eta kontaktuak garatu.
— Herritarren Arreta Zerbitzuarekiko harremanetarako pertsona izan, eta zerbitzu horri aldizka departamentuaren informazio egiazkoa eta eguneratua eman.
— Langileen hautatze prozesuetan parte hartu, bere lanpostuaren sailkapenarekin bat datorrenean.
— Zehaztutako helburuak lortzeko beharrezko diren eta horrela eskatzen zaizkion beste edonolako lanak burutu, bere lanpostuaren sailkapenarekin bat datozenak.

**Hirugarrena.—*Hautagaien baldintzak eta betekizunak***

Hautaketa-prozedura honetan parte hartu nahi duen pertsona orok ondoren adierazi diren betekizun orokorrak bete beharko ditu:

a) Nazionalitatez, espainiarra izatea.

Era berean, enplegu publikora funtzionario gisa sartzeko hauta-probetan parte hartu ahal izango dute, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 57. artikuluan xedatutakoaren arabera, espainiarren baldintza berberetan:

i. Europar Batasuneko Estatu kideetako herritarrak.

ii. Espainiaren eta Europar Batasuneko estatuetako herritartasuna duten ezkontideek, duten naziotasuna dutela ere, baldin eta zuzenbidearen arabera bananduta ez badaude; eta baita ere herritartasuna duenaren ondorengoek eta haren ezkontidearen ondorengoek ere, zuzenbidearen arabera banan-

eek: BAO-2023a199-(II-4945)

duta ez badaude, 21 urtetik beherakoak badira edo, adin horretatik gorakoak izanda ere, inoren mende bizi badira.

iii. Europar Batasunak egin dituen, Espainiak berretsi dituen eta langileen zirkulazio librea dakarten nazioarteko itunen aplikazio-eremuan sartuta dauden pertsonak.

b) 16 urte beteta izatea eta nahitaezko erretiroa hartzeko adin muga gaindituta ez izatea eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean.

c) Zereginak egiteko gaitasun funtzionala izatea. Horretarako, gaitasun psikofisiko zehatza izan beharko du, eta bere gaitasun edo desgaitasuna bateragarria izan beharko da plazari dagozkion eginkizunak eta zereginak normaltasunez betetzeko.

Betekizun hori betetzen dela frogatu beharko da hautaketa-prozedura gaindituta-koan, mediku azterketa eginez.

d) Diziplina espedienteren baten bidez edozein Administrazio Publiko, organo konstituzional edo autonomia erkidegoetako organo estatutarioetako zerbitzutik banatuta ez egotea, eta ebazpen judizial bidez gaitasungabetze erabatekoa edo berezia ez izatea enplegu edo kargu publikoetarako, banatu edo gaitasungabetu den kidegoan edo eskalan sartzeko.

Beste estaturen batekoa izanez gero, gaitasuna kenduta edo antzeko egoeraren batean ez egotea, eta bere estatuan enplegu publikoan jardutea galarazten dion diziplina zigorrik edo antzekorik jaso gabea izatea.

e) Herri Administrazioen zerbitzupeko langileen bateraezintasunen arloan indarrean dagoen araudian aurreikusitako ezgaitasun edo bateraezintasuneko legezko kausaren batean sartuta ez egotea; nolanahi ere, kargu publiko edo jarduera pribatu bateraezin bat betetzen dutenek aipatutako lege-arauetan aipatzen den aukera-eskubidea baliatu ahal izango dute.

f) Titulazioa: Arkitektoaren Unibertsitate Titulu Ofiziala izatea edo hori eskuratzeko eskubideak ordainduta izatea. Ondorio horietarako, ez da nahikoa izango titulazioa eskuratzeko ikasketa-planak edo -probak gaindituak izatea, ezta hori egiaztatzen duen ziurtagiri akademikoa edukitzea ere. Egoera horietan daudenek, titulazioaren baldintza betetzeari dagokionez, titulua emateko eskubideak ordainduta izan beharko dituzte hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskaerak aurkezteko epearen barruan.

Atzerrian lortutako tituluren bat aurkeztuz gero, titulu horren baliozkotzea edota homologazioa egiaztatzen duen ziurtagiria izan beharko da.

g) Euskararen 4. hizkuntza-eskakizuna edo baliokidea egiaztatzea, euskararen ezagutza egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetzeko indarrean dagoen araudiaren arabera, eta horiek Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratura egokitzea.

Oinarri honetan zerrendatutako baldintzak eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean eduki beharko dira, c) eta g) idatz-zatiak izan ezik, eta betekizun horiek bete beharko dira hautaketa-prozedura osoan, karrerako funtzionarioaren izendapenera arte.

Hala ere, prozedurako edozein unetan Epaimahai Kalifikatzaileak jakingo balu izangairen batek ez dituela deialdiaren baldintzak betetzen, izangai hori prozesutik baztertuko da, interesdunari entzunaldia eman eta gero.

**Laugarrena.—*Eskabideak aurkeztea***

Hautaketa-prozeduran parte hartu nahi dutenek oinarri hauen I. eranskinean jasota dagoen eskabide-orri normalizatua Ondarroako Alkateari zuzenduko diote. Eredu normalizatu hori Ondarroako Udaleko erregistro zerbitzuan eskuragarri egongo da, baita Udalaren webgunean ere: www.ondarroa.eus. Izangai bakoitzari eskabide orri bat besterik ez zaio onartuko. Izangai berak eskaera orri bat baino gehiago aurkeztuko balitu, azkena aurkeztutakoa soilik hartuko da kontuan.

eek: BAO-2023a199-(II-4945)

Parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea 20 egun baliodunekoa izango da, deialdiaren laburpena Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoko egunetik hasita, 5.3 Oinarri Orokorrean zehaztutakoarekin bat.

Parte hartzeko eskabideek baldintza hauek bete behar dituzte:

a) Parte hartu nahi dutenek eskaera orriak aurkezteko epea bukatzen den datan hirugarren oinarrian eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituztela adierazi beharko dute eskaera orrian, eta bertan eskatzen diren atal guztiak bete beharko dituzte. Xedapen honetatik salbuetsita daude gaitasun funtzionalaren eta euskara jakitearen baldintza, azken honen kasuan, 9.1. oinarrian laugarren ariketari buruz ezarritakoan baita hor aplikatzekoa.

b) Eskaera orriak Ondarroako Udaleko erregistroan aurkeztu behar dira, behar bezala beteta eta sinatuta, deialdiaren laburpena Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoko egunetik hasita, hogei egun baliodunen epe barruan.

c) Eskabideak leku hauetan aurkeztu ahalko dira:

   a. Ondarroako Udaleko erregistroan edo aipatu 39/2015 Legearen 2.1. artikuluan aipatzen diren erakundeen gainerako erregistro elektronikoetan.

   b. Posta-bulegoetan. Posta-bulegoetan aurkeztutako eskabideak bulego horietan entregatuko dira eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen, gutun-azal irekian, postako funtzionarioak data eta zigilua jar diezaien. Horrela bakarrik ulertuko da postetxean aurkeztu ziren egunean sartu zirela. Eskabide orria da zigilua izan behar duena.

   c. Espainiak atzerrian dituen diplomaziako ordezkaritzetan edo konsuletxeetako bulegoetan.

   d. Erregistro-gaietan laguntzeko bulegoetan.

   e. Indarrean dauden xedapenek ezartzen duten beste edozein lekutan.

d) Ofizioz, honako betekizun/informazioa bitarteko elektronikoen bidez egiaztatuko da eta/edo espedientean sartuko dira, interesdunak berariaz kontrakoa adierazi ezean:

   a. Nortasun-datuak egiaztatzea.

   b. Titulu akademikoak (unibertsitatekoak zein unibertsitatetik kanpokoak).

   c. Euskararen hizkuntza-eskakizunak. Interesdunek Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan kontsultatu ahal izango dituzte beren datuak, esteka honen bidez: https://www.euskadi.eus/euskara-tituluen-eta-ziurtagirien-erregistro-bateratua/web01-a2etzeb/eu/

   Euskararen jakite-maila alegatu egin beharko da, baina izangaiari ez zaio eskatuko dokumentu bidezko egiaztapenik, Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan jasota badago. Hala ez bada, aurkeztu egin beharko da egiaztagiria.

   d. IT Txartelak.

e) Era berean, lehiaketa-fasean baloratu beharreko merezimenduen zerrenda jaso beharko da eskabidean, eta ez da baloratuko zerrenda horretan ageri ez den inolako merezimendurik. Merezimendu horien ziurtagiriak oposizio-fasea gainditzen duten hautagaiek soilik aurkeztu beharko dituzte bitarteko elektroniko bidez, ofizioz ziurtatu ezin badira. Horretarako Epaimahai Kalifikatzaileak epealdi jakin bat zabalduko du. Edonola ere, ez da baloratuko eskaera orria aurkezteko garaian behar bezala alegatu ez den merezimendurik, ez eta izangaiek dituzten merezimenduen berri bitarteko elektronikoen bidez ofizioz izan bada ere. Ezinbestekoa da kontuan hartzea nahi diren merezimenduak zehatz-mehatz alegatzea.

Ondarroako Udalak edo prozedurako Epaimahai Kalifikatzaileak aipatu ziurtagiriak bitarteko elektroniko bidez eskuratu ezin dituen kasuetan, izangaiei horiek aurkezteko eskatzeko aukera erreserbatzen du.

eek: BAO-2023a199-(II-4945)

Aurkeztu beharreko agiriak Ondarroako Udalaren esku badaude, ez da beharrezkoa izango berriro aurkeztea, baldin eta agiri horiek noiz eta zein bulegotan aurkeztu ziren adierazten bada eta prozedura amaitu zenetik bost urte baino gehiago igaro ez badira.

Hirugarren oinarriko lehenengo ataleko a) letran nazionalitate-betekizunari buruz jasotakoarekin bat etorriz, Espainiako Nortasun Agiri Nazionalaren nortasun baliokidea egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko da, eta, hala dagokionean, adierazitako ahaidetasun-loturetako bat egiaztatzen duen dokumentazioa.

Eskabidea behar den denboran eta moduan aurkezten ez bada, dena delako izangaia hautaketa-prozesutik baztertuko da. Hala ere, 39/2015 Legearen 68. artikuluaren arabera, eskaera-orriren batek akatsik izanez gero, hamar egun balioduneko epea emango zaio interesatuari akats hori zuzentzeko, eta zuzentzen ez badu, bere eskarian atzera egin duela ulertuko da. Izapide hau ezin izango da inola ere erabili merezimenduak alegatzeko epea amaitu ondoren merezimendu berriak alegatzeko.

**Bosgarrena.—*Komunikazioak eta jakinarazpenak***

Oinarri hauetan komunikazioren bat argitaratzeko araubide zehatzik ezartzen bada, Udalaren iragarki-taulan eta www.ondarroa.eus webgunean argitaratuko da, modu ofizialean; hala ere, informatzeko beste bitarteko gehigarri batzuk ere erabili ahal izango dira. Horrez gain, indarrean dagoen araudiak komunikazio eta jakinarazpen jakin batzuk aldizkari ofizialetan argitaratzea eskatzen badu, bide horietan ere argitaratuko dira.

Egintza eta ebazpenen banakako jakinarazpenak egin behar direnean, eskatzaileek eskaera orrian adierazitako bitartekoen bidez egingo dira. Bitarteko elektronikoak hautatuz gero, izangaiak ohar bat jasoko du hark emandako helbide elektronikoan, Ondarroako Udalaren egoitza elektronikoan jakinarazpen bat duela jakinarazteko.

**Seigarrena.—*Datu pertsonalak***

Informazioaren tratamenduak kontuan hartuko ditu Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa; Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, pertsona fisikoen babesari buruzkoa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez; eta aplikagarri diren bestelako arauak.

Izangaiek hauta-proban parte hartzeko eskabide inprimakia aurkezteak berekin dakar aldizkari ofizialetan, iragarki tauletan, Udalaren webgunean eta hauta-probetako oinarri arautzaileak aplikatuz erabiltzen den beste ezein hedabidetan identifikatuak izateko baimena ematea izen-abizenak, NAN eta ikasketak). Orobat, berekin dakar izangaiak adostasuna ematea Ondarroako Udalak haren datu pertsonalak trata ditzan hautapen prozesu horretatik sortutako lan-poltsak kudeatzeko. Halaber, hautagaiek datuak erabiltzeko baimena ematen dute, HAEEk edo erakunde eskudunak euskararen hizkuntza-eskakizuna egiaztatu dezan, eta, oro har, hautaketa-prozesuari dagozkion ariketak epaimahaiak, erakundeak, enpresak edo epaimahaiak agintzen dionak modu egokian prestatu eta burutzeko direla baieztatzeko. Bide beretik, hautapen prozesuan zehar hautagaiek emandako dokumentazioa erabiltzea ere suposatzen du hautaketa prozesuan parte hartzeak.

Beste aldetik, izangaiek berariazko baimena eman beharko dute parte hartzeko eskaeran, beren datuak beste administrazio publiko batzuei lagatzeko. Datu-lagapen horren helburu bakarra honako hau izango da: administrazio publiko horiek enplegu eskaintzak izangaiei egin ahal izatea, legez aurreikusi bezala. Izangaiaren onarpena berariaz jasotzen ez bada, lagapenaren aurka dagoela joko da.

Datu horiek eskuratu, zuzendu, ezabatu eta mugatzeko eta erabiltzailearen aurka egiteko eskubideak Ondarroako Udalean gauzatu daitezke, edo egoitza elektronikoan (www.ondarroa.eus).

**Zazpigarrena.—*Hautagaiak onartzea***

Onartua izateko, parte hartzeko eskatutako betebehar gutzi-guztiak betetzen dituela adierazi behar du izangaiak eskabidean. Adierazpen hori izangai bakoitzak bere ardu-

eek: BAO-2023a199-(II-4945)

rapean egingo du, eta onartuen zerrendan agertzeak ez du esan nahi betekizun horiek betezen dituela onartzen zaionik. Beraz, Ondarroako Udalak eskubidea du izangaia hautapen prozesutik at uzteko, baldin izangaiak eskatzen zaion unean betekizunak betetzen dituela frogatzen ez badu.

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, Ondarroako Udaleko Alkateak onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onartuko du, eta, hala badagokio, baztertzeko arrazoiak adieraziko ditu. Zerrenda hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta Ondarroako Udalaren iragarki-oholean eta udalaren web-orrian jarriko da ikusgai. Zerrenda horrekin batera adieraziko da Epaimahai Kalifikatzailea nork osatuko duen (titularrak eta ordezkariak).

Aipatu behin-behineko eta behin-betiko zerrendetan izangaien izena eta bi deitura agertuko dira, bai eta Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia ere, azken hau, behar bezala anonimizatuta.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan xedatutakoaren arabera, behin-behineko zerrenda horretatik kanpo geratu diren izangaiei hamar egun balioduneko epea emango zaie, zerrenda Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, baztertzea eragin duten akatsak edo omisioak zuzentzeko erreklamazioak jartzeko.

Inork ere ezeren erreklamaziorik aurkeztu ez edo dei-egileak ezeren hutsik aurkitu ez badu, behin-behineko zerrenda behin-betikotzat joko da, eta halaxe jakinaraziko da, Ondarroako Udaleko Alkatearen ebazpen baten bidez. Ebazpen hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialean nahiz Udalaren iragarki oholean eta webgunean argitaratuko da.

Erreklamaziorik izaten bada, beste ebazpen baten bidez onartu edo baztertuko dira, eta, era berean, behin-betiko zerrenda ere onartuko da. Zerrenda hori aurreko paragrafoan esanda bezala argitaratuko da. Oinarri orokorretako seigarrenean adierazten den moduan, behin-behineko zerrendetatik kanpo utzi dituzten hautagaiak, zerrenda horren aurkako erreklamazioa epearen barruan aurkeztu badute, badaezpada probetara aurkeztu ahal izango dira, ordurako erreklamazioa ebatzi ez baldin bada. Halaber, behin betiko zerrendetatik kanpo geratu diren hautagaiak badaezpada probetara aurkeztu ahal izango dira, zerrendetatik kanpo uztearen aurkako errekurtsoa aurkeztu dutela egiaztatzen baldin badute eta ordurako oraindik ebatzi ez baldin bada.

**Zortzigarrena.—*Epaimahai Kalifikatzailea***

Hautaketa-prozedurako Epaimahai Kalifikatzailea oinarri orokorretako zortzigarren oinarrian adierazi bezala eratuko da, bertan jasotako ahalak izango ditu eta adierazitako jarduna izango du helburu. Era berean, aplikagarri izango da abenduaren 1eko Euskal Enplegu Publikoaren 11/2022 Legeko 22.4 eta 81. artikuluetan ezarritakoa; baita urriaren 30eko Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuko 60. artikuluan xedatutakoa ere.

**Bederatzigarrena.—*Hautaketa-prozedura***

Izangaiak hautatzeko prozedura oposizio-lehiaketa izango da, eta oinarri orokorretako bederatzigarren oinarrian ezarritakoarekin bat garatuko da.

9.1. *Oposizio-fasea*

Oposizio-fasean gehienez ere 70 puntu lortu ahalko dira.

Oposizio-faseak lau ariketa izango ditu eta guztiak nahitaezkoak eta baztertzaileak izango dira. Epaimahai Kalifikatzaileak ariketen ordena aldatu ahal izango du, eta ariketa bakoitza egiteko eguna, lekua eta ordua 72 ordu lehenago iragarriko du, gutxienez, www.ondarroa.eus webgunean eta Ondarroako Udaleko iragarki taulan. Oposizio-fasean egingo den lehenengo ariketaren inguruko informazioa hautaketa-prozesuko onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda argitaratzerakoan emango da, bederatzigarren oinarri orokorreko bigarren puntuan xedatu bezala.

Oposizio-faseko ariketa bakoitzean, deialdi bakarra egingo zaie hautagaiei. Azterketa egitera azaltzen ez direnak hautaprobatik baztertuta geratuko dira eta ezingo dute ez

eek: BAO-2023a199-(II-4945)

ariketa hori ez hurrengorik egin, behar bezala egiaztatutako kasuetan eta Epaimahai Kalifikatzaileak halakotzat jotzen dituenean izan ezik. Arau bera aplikatuko da nahitaezko ariketak egiten hasiak direnean. Ariketak egitera aurkeztu ezean edo berandu azalduz gero, proba horiek egiteari uko egin zaiola ulertuko da.

Izangai bakoitzak eskabide orrian adierazi beharko du ariketak Euskal Autonomia Erkidegoko zein hizkuntza ofizialetan egin nahi dituen.

Epaimahai Kalifikatzaileak edozein unetan eskatu ahal die hautagaiei identifikatzeko; hori dela eta, ariketa guztietara eraman behar da nortasun-agiria edo Epaimahai Kalifikatzaileak identifikatzeko egokitzat jotzen duen beste edozein agiri (pasaportea, gidabaimena, Atzerritarren Nortasun Zenbakia…).

Oposizio faseko ariketa bat amaitu eta hurrengoa hasteko gutxieneko epea 72 ordukoa izango da eta gehienekoa 60 egunekoa. Hala ere, Epaimahai Kalifikatzaileak saio bakarrean ariketa bat baino gehiago batera egitea erabaki dezake, egoki irizten badio.

Ariketa bakoitzaren ostean Epaimahai Kalifikatzaileak ariketa bakoitzaren behin-behineko emaitzak argitaratuko ditu eta izangaiek bost egun balioduneko epea izango dute egoki deritzen alegazioak aurkezteko. Edonola ere, kasu bakoitzean egindako idatzizko ariketa aipatu epearen lehen hiru egunetan eskatu beharko dira, eta eskaera hori egiteak ez du bost egun balioduneko epea inolaz ere etengo. Alegaziorik aurkeztuko ez balitz, behin behineko emaitzak behin betiko bihurtuko dira automatikoki. Edozein modutan, Epaimahai Kalifikatzaileak ariketa bakoitzaren behin betiko emaitzen inguruko ebazpena argitaratuko du.

Izangaiek ezagutu beharreko legedia deialdiaren iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denean indarrean daudena izango da, oinarri orokorren zortzigarren oinarriko bigarren atalean jasotakoarekin bat.

Lehenengo ariketa: Teorikoa

Hainbat aukerako galderen sorta bati erantzun beharko zaio, oinarri hauen II. eranskinean jasotako gai zerrendari buruz. Galdera bakoitzak erantzun zuzen bakarra izango du.

Ariketa honetan gehienez 20 puntu lortu ahalko dira. Gutxienez 10 puntu lortu beharko dira ariketa gainditzeko. Dena den, probara aurkeztutako izangaien %50a lehenengo ariketa gainditzeko gutxieneko puntuaziora iritsiko ez balitz, Epaimahai Kalifikatzaileak ariketa gainditzeko gutxieneko puntuazioa egokitu ahal izango du, gaindituen portzentaje hori lortu arte. Kasu horretan gutxieneko puntuazio hori lortzen duten izangai guztiek gaindituko dute lehenengo ariketa.

Ariketa honen puntuazio zuzena (P), honako formula hau aplikatuz lortuko da: puntuazio zuzena (P) da erantzun zuzenen kopurua (A) ken okerren (E) kopuruaren heren bat; hau da, $P = A - E/3$. Efektu hauetarako, erantzuten ez diren galderak ez dira okertzat emango.

Bigarren ariketa: Praktikoa

Epaimahai Kalifikatzaileak II. eranskineko gai zerrendarekin eta/edo lanpostuaren eginkizunekin lotuta planteatzen dituen kasu praktikoak ebatzi beharko dira. Kasu horiek idatziz nahiz jarduera baten edo batzuen bidez gauzatu ahal izango dira. Epaimahai Kalifikatzaileak ariketa hau egiteko materialak erabiltzea baimendu ahalko du.

Epaimahai Kalifikatzaileak izangaiei ariketa irakurtzeko eskatu ahalko diete. Hala erabakiz gero, funtsean, aztertzeko gaitasuna eta planteatutako arazo praktikoak ebazteko ezagutza teorikoan modu arrazoituan aplikatzeko gaitasuna baloratuko da. Azalpena amaitu ondoren, Epaimahai Kalifikatzaileko kideek hitz egin izango dute izangaiarekin, proposatutako irtenbideei buruz, eta objekzioak, planteamendu alternatiboak, zehaztasun-eskaerak edo kasu eta arazo hipotetikoetarako egokitzapenak planteatu ahal izango dituzte, Udala bezalako erakunde konplexu baten errealitatean gertatzen diren egoerak eta rolak simulatzen saiatzeko.

Ariketa honetan gehienez 45 puntu lortuko dira. Gutxienez 22,5 puntu lortu beharko dira ariketa gainditzeko. Dena den, probara aurkeztutako izangaien %50a bigarren

eek: BAO-2023a199-(II-4945)

ariketa gainditzeko gutxieneko puntuaziora iritsiko ez balitz, Epaimahai Kalifikatzaileak ariketa gainditzeko gutxieneko puntuazioa egokitu ahal izango du, gaindituen portzentaje hori lortu arte. Kasu horretan, gutxieneko puntuazio hori lortzen duten izangai guztiek gaindituko dute bigarren ariketa.

Hirugarren ariketa: Gaitasunak ebaluatzeko probak

Ariketa honetan gehienez 5 puntu lortu ahal izango dira, eta gainditzeko gutxieneko puntuazioa 2,5 izango da.

Proba bat edo gehiago egingo dira balioesteko izangaiek badituzten arkitekto lanpostuak betetzeko beharrezkoak diren gaitasunak: profesionaltasuna, talde lana, lidergoa, komunikazioa eta aldaketarekiko erantzun positiboa.

Ondorio hauetarako, Epaimahai Kalifikatzaileak erabakiko du zer motatako proba edo probak egingo diren (testak, kontrasteko elkarrizketak, talde dinamika, rol probak, elkarrizketak edo bestelako probak). Proba motaren edo moten arabera, probak bideoz grabatu ahalko ditu Epaimahai Kalifikatzaileak.

Laugarren ariketa: Euskara

Deialdiko lanpostuari 4. hizkuntza eskakizuna esleitu zaio; beraz, euskararen hizkuntza eskakizun hori eduki behar da lehiaketan parte hartu ahal izateko. Euskararen ezagutza maila euskarako proba gainditauta egiaztatuko da, eta proba hori Gai edo Ez Gai joko da.

Nolanahi ere, euskarako probaren lehen ariketa egiten den aurreko egunera arte, izangaiek aipatu hizkuntza eskakizuna beste bide batzuetatik ziurtatu ahal izango dute. Epaimahai Kalifikatzaileak Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan ofizioz kontsultatuko ditu izangaiek alegatutako hizkuntza-eskakizunak. Honako baldintzaren bat bete beharko da laugarren ariketa egitetik salbuesteko:

— 4. hizkuntza eskakizuna lortua izatea, edo eskakizun horrekin baliokidetutako titulu edo egiaztagiri bat izatea, 297/2010 Dekretuak, azaroaren 9koak, xedatutakoari jarraituz (euskararen jakite maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekidetzeko dena).

— Kasuan kasuko baliokidetza eskuratua izatea, hain zuen ere euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara maila hizkuntza tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko den apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren indarrez.

Edonola ere, hizkuntza eskakizunaren edo baliokidetutako ziurtagirien edota tituluen lortze data, nahiz azterketa egin beharrik ez izatea dakarten ikasketen onarpenaren lortze data euskarako probari dagokion lehen ariketa egin aurrekoa izango da.

4. hizkuntza eskakizunaren ziurtagiria ez dutenen kasuan, prozesuaren beste fase bat izango da hori egiaztatzeko probak egitea. Epaimahai Kalifikatzaileak aditzera emango du hautaketa-prozesuko zein unetan egingo den euskarako proba, horretarako deialdi bakarra eginez.

4. hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko probak egingo dira eta, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 43.2. artikuluaren arabera, baita 3. hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko probak ere. Oposizio faseko gainerako hiru ariketak gainditzen dituzten izangaietatik bakar batek ere ez badu 4. hizkuntza eskakizuna egiaztatzen, prozesua puntuazio handienarekin gainditu duen eta 3. hizkuntza eskakizuna egiaztatu duen izangaiak beteko du lanpostua.

4. hizkuntza eskakizunaren kasuan bezala, agirien bidez egiaztatu ahal izango da 3. hizkuntza eskakizuna, euskarako lehen ariketa egingo den egunaren bezpera arte.

eek: BAO-2023a199-(II-4945)

9.2. *Lehiaketa fasea*

Lehiaketa fasean gehienez ere 30 puntu lortu ahalko dira.

Lehiaketa fasean izangaiek eskabideak aurkezteko epean berariaz alegatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira, eta bakoitzari merezimenduen baremoaren arabera dagozkion puntuak esleituko zaizkio. Hautagai bakoitzak alegatutako merezimenduek Epaimahai Kalifikatzailea lotzen dute, eta merezimendu horiek soilik baloratu ahal izango ditu Epaimahaiak. Eskabide orriak aurkezteko azken eguna arteko merezimenduak besterik ez dira balioetsiko. Dena dela ere, euskarari dagokionez, 9.1 oinarrian laugarren ariketaren inguruan ezarritakoa hartuko da kontuan, eta Epaimahai Kalifikatzaileak lehiaketa faseari ekin ahal izango dio euskara-proba egin edo emaitzak jakin aurretik. Kasu horretan, oposizio faseko gainontzeko hiru ariketak gainditu dituzten izangai guztiek beren merezimenduak egiaztatu beharko dituzte, eta oraindik 4. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu ez dutenek kautelaz egin beharko dute.

Lehiaketa fasea ez da baztertzailea izango, eta ezin izango da kontuan hartu oposizio-faseko ariketak gainditzeko.

Oposizio fasea gainditu duten izangaiei bost egun balioduneko epea emango zaie eskaera orriak aurkezterakoan alegatutako merezimenduen ziurtagiriak aurkezteko. Eskaera orrian alegatutako merezimenduen erlazioa loteslea izango da, eta izangaiek ezingo dituzte merezimendu gehiago txertatu. Ondarroako Udalak ofizioz ziurtatuko ditu bitarteko elektronikoen bidez eskuragarri dituen ziurtagiriak, laugarren oinarriko e) puntuan adierazi bezala. Laugarren oinarriko d) atalean adierazitako merezimenduen ziurtagiriren bat bitarteko elektronikoen bidez ziurtatu ezingo balitz, Epaimahai Kalifikatzaileak epe bat zabaldu ahalko du izangaiek kasuan kasuko ziurtagiriak aurkeztu ditzaten.

Jarritako epean behar bezala alegatu eta egiaztatu gabeko merezimenduak ez dira inolaz ere baloratuko. Dagokion baremoaren arabera merezimenduak baloratzeko izan behar diren datuak ez dituzten dokumentuak ere ez dira baloratuko. Merezimendu horiek Ondarroako Udaleko izangaiaren espediente pertsonalean jasota badaude, ez da egiaztatu beharrik izango. Izangai bakoitzaren zeregina da bere espediente pertsonaleko edukia aztertzea eta eskaera orrian adieraziko dituen merezimenduak egiaztatzeko dokumentuak bertan jasota daudela ziurtatzea. Ondorio horietarako, Ondarroako Udaleko langileen espedientetzat hartzen da Ondarroako Udalean lanean ari diren edo aritu diren pertsonen espedientea; hortaz, Ondarroako Udalean inoiz lan egin ez duten izangaiek ez dute espediente hori.

Hautaketa prozesutik baztertuta egon arren baztertze horren kontrako erreklamazioa aurkeztu duten eta horren gaineko behin betiko erabakiaren zain daudenek ere merezimenduak egiaztatu beharko dituzte, kautelazko neurri gisa.

Epaimahai Kalifikatzaileak merezimenduak balioetsiko ditu, eta lehiaketa faseko behin behineko emaitzak argitaratuko. Kalifikazio horiekin batera, dokumentazioa zuzendu beharra duten izangaien zerrenda argitaratuko da, berariaz adierazita zein merezimenduren egiaztagiria zuzendu behar den. Argitaratu eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita, izangaiek 10 egun balioduneko epea izango dute egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko eta beharrezkoak diren zuzenketak egiteko. Epe hori amaitutakoan, epaimahaiak aztertuko ditu aurkeztutako erreklamazioak eta zuzenketak, eta ondoren lehiaketa faseko behin betiko emaitzak argitaratuko ditu.

Lehiaketa faseko puntuazioa merezimenduen baremo honen araberakoa izango da:

1. Lan-esperientzia Administrazio Publikoan eta eremu pribatuan: 15 puntu gehienez.

— Herri Administrazioan Arkitekto lanpostuan edo antzekoetan izandako esperientzia (A1 azpitaldea): 0,25 puntu, lan egindako hilabete oso bakoitzeko; gehienez ere 15 puntu.

— Herri Administrazioan Arkitekto Tekniko lanpostuan edo antzekoetan izandako esperientzia (A2 azpitaldea): 0,1666 puntu, lan egindako hilabete oso bakoitzeko; gehienez ere 10 puntu.

eek: BAO-2023a199-(II-4945)

— Eremu pribatuan arkitekto lanpostuan edo kategoria bereko edo antzeko lanpostuetan izandako esperientzia, baldin eta deitutako lanpostuko eginkizun eta zeregin berberak edo antzekoak badituzte: 0,0833 puntu, lan egindako hilabete oso bakoitzeko; gehienez ere 5 puntu.

Egindako zerbitzuak balioesteko baremoan Herri Administraziotzat hartzeko egiten den aipamena indarrean den araudian jarritako adieraren arabera egindakotzat hartu behar da; bereziki, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 2. artikuluan, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 2. artikuluan eta lehen xedapen gehigarrian.

Efektu hauetarako, pasatutako denboraren arabera hilabeteko epetan baloratzen diren merezimenduak alegatutako aldien egun kopurua batuta zenbatuko dira. Batuketa egin ondoren, erreferentziako aldia baino zati txikiagoak baztertu egingo dira. Alde horretatik, 30 egun naturalen batura hartuko da hilabetetzat.

Emandako zerbitzuak baloratzeko baremoa aldi osoan emandako zerbitzuak kontuan hartutako hura izango da. Hala, lanaldi osotzat hartuko da hautagaiak senideak zaintzeko edo genero-indarkeriagatiko eszedentzia-egoeran egon den denbora; amatasuna eta aitatasuna babestea edo bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa kontziliatzen laguntzea xede duten lanaldi-murrizketei edo baimenei egotz dakiekeen denbora; eta baita genero-indarkeriagatiko baimenak baliatu dituzten denbora ere. Lanaldi partzialeko gainontzeko kasuetan, puntuazioa lanaldiaren proportzio berean murriztuko da.

Ez da baloratuko emandako zerbitzuak zer lanaldi-erregimenetan ematen diren eta, lanaldi murrizketarik izan bada, murrizketaren ehunekoa adierazten ez duen egiaztagiririk.

Ez dira baloratuko behin-behineko lanpostuetan emandako zerbitzuak, ez eta bekak eta prestakuntza-praktikak ere. Era berean, ez dira balioetsiko lan-kontratuz lotu gabeko langile gisa emandako zerbitzuak, izaera zibilekoak zein merkataritzakoak izanik ere haiek; ez eta enplegu-politika aktiboen garapenetik eratorritako programetan zerbitzu ematen duten edo eman duten obra edo zerbitzu jakin bateko aldi baterako langile gisa emandako zerbitzuak ere, edozein administrazioren funts propioekin zein kanpoko dirulaguntzekin finantzatuta izanda ere haiek.

Ondarroako Udalean emandako zerbitzuak ofizioz egiaztatuko dira; betiere, behar bezala alegatzen badira. Aldiz, beste Administrazio Publiko batzuetan egindako lana organo eskudunaren ziurtagiriaren bidez egiaztatuko da. Ziurtagiri horretan alderdi hauek jasoko dira: betetako lanpostuaren izena eta ezaugarriak lanpostuaren zerrendaren arabera (sailkapen taldea, eskala, azpieskala, klasea, espezialitatea/kategoria), lanaldia, lanpostuaren eginkizunak eta zereginak, lan-harremana eta lan egindako epea.

Eremu pribatuan izandako esperientzia egiaztatzeko, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak emandako Lan Bizitzaren ziurtagiria eta enpresaren ziurtagiri bat aurkeztu beharko dira. Ziurtagiri horretan, alderdi hauek jasoko dira: lanpostuaren izena eta ezaugarriak, kategoria, eskatutako titulazioa, lanpostuaren eginkizunak eta zereginak, lan-harremana eta lan egindako epea. Azken ziurtagiri horren ordez, lan kontratuaren fotokopia edo, Epaimahai Kalifikatzailearen iritziz, egokiak diren agiriak aurkez daitezke.

2. Titulu ofizialak: 11 puntu gehienez. Ondarroako Udaleko Arkitekto lanpostua betetzeko baliagarritasunaren arabera baloratuko dira. Baliagarritasun hori maila hauen arabera baloratuko da:

a) Baliagarritasun altua.

b) Baliagarritasun ertaina.

c) Baliagarritasun nabarmenik gabe.

eek: BAO-2023a199-(II-4945)

Baliagarritasun altua duten titulazio ofizialekin lortzen dira aurreko bi baremotan ezarritako puntuak. Baliagarritasun ertaina badute, dagokion baremoan ezarritako puntuen erdia eskuratuko da. Aldiz, baliagarritasun nabarmenik gabeko titulazioengatik ez da punturik emango. Epaimahai Kalifikatzailea izango da baliagarritasunen inguruan balorazioak egiteko organo eskuduna.

Titulu ofizialak balioetsi ahal izateko, baremo hau hartuko da kontuan:

— Unibertsitateko gradua (MECES esparruko 2. maila), edo baliokidea: 3 puntu tituluko.

— Unibertsitateko gradua (MECES esparruko 3. maila) edo baliokidea: 5 puntu tituluko.

— Unibertsitateko graduondokoa edo masterra: 4 puntu tituluko.

— Doktoretza: 8 puntu tituluko.

Unibertsitateko berezko tituluak eta diplomak balioztatzeko baremo honi jarraituko zaio:

— 200 ordutik gora eta 250 ordu bitartekoak: puntu 0,5.

— 250 ordutik gora eta 300 ordu bitartekoak: 0,75 puntu .

— 300 ordutik gorakoak: puntu 1.

Unibertsitateetako titulu propioen iraupena soilik kreditu bidez adierazten bada, eta bestelakorik zehazten ez bada, kredituko hamar ordu direla kalkulatuko da. ECTS kredituak adierazten badira, baina bestelakorik zehazten ez bada, kredituko hogeita bost ordu direla kalkulatuko da.

Ez dira baloratuko ordu edo kreditu kopurua espresuki adierazia ez duten diplomen bidez egiaztatutako unibertsitateko titulu propioak.

Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolak emandako Hirigintzako ikastaro osoa edo antzeko ezaugarriak dituztenak 6 punturekin balioetsiko dira. Ikastaroaren modulu batzuk soilik egin badira, moduluko puntu bana emango da.

Hautaketa-prozesuan parte hartzeko alegatutako titulazio akademikoa ez da kontutan izango lehiaketa fasean. Unibertsitate ikasketa bereko ziklo desberdinak gainditua izatea egiaztatzen duten izangaiei egiaztatutako ziklo gorenekoari dagokion titulua bakarrik balioetsiko zaie.

Gradu titulua ez da balioetsiko, baldin eta titulua lortzeko ikasketa berdinei dagokien unibertsitate titulua (diplomatura edo lizentzia) dutenei zuzendutako egokitze-ikastaro bat egin bada.

Gradu eta unibertsitate masteraren bidez MECES esparruko 3. maila egiaztatzen denean, unibertsitate masterra ez da merezimendu gisa balioetsiko, baldin eta deialdian MECES esparruko 3. mailako titulua duten pertsonak parte hartzen badute.

3. Ikastaroak, mintegiak eta prestakuntza osagarria, Administrazio Publikoko eskola edo institutuek, Administrazio Publikoek, Unibertsitateek, Elkargo Profesionalek, Mutualitateek, Fundazioek, Elkarteek, Federazioek, erakunde publikoek edo itunduek emandakoak, lanpostuaren berezko eginkizunekin zerikusia dutenak. Ikastaro ordu bakoitza 0,006 punturekin baloratuko da baliagarritasun altua badute. Baliagarritasun ertaina edo baliagarritasun nabarmenik gabeko ikastaro eta abarren kasuan, aurreko zenbakian ezarritakoaren arabera jokatuko da. Atal honetan gehienez 3 puntu lortu ahalko dira.

Azken 10 urtetan emandako eta 10 ordu edo gehiagoko ikastaroak soilik hartuko dira kontuan, eskaera orriak aurkezteko azken eguna erreferentziatzat hartuta. Gai berari buruzko ikastaroak daudenean eta horien artean espezializazio- edo hierarkia-harremana dutenean, iraupen luzeena duena bakarrik hartuko da kontuan.

4. Informatika: puntu 1 gehienez. KZ Gunea ikastetxe publikoetako modulu hauek soilik hartuko dira kontuan:

eek: BAO-2023a199-(II-4945)

— Microsoft Word 2003/2007/2010 Oinarrizkoa: 0,10 puntu.
— Microsoft Word 2003/2007/2010 Aurreratua: 0,20 puntu.
— Microsoft Excel 2003/2007/2010 Oinarrizkoa: 0,10 puntu.
— Microsoft Excel 2003/2007/2010 Aurreratua: 0,20 puntu.
— Microsoft Access 2003 Oinarrizkoa: 0,10 puntu.
— Microsoft Access 2003 Aurreratua edo Microsoft Access 2010: 0,20 puntu.
— Internet Oinarrizkoa: 0,10 puntu.
— Internet Aurreratua: 0,20 puntu.
— Microsoft Outlook 2010: 0,20 puntu.

Modulu bereko oinarrizko maila eta maila aurreratua egiaztatuz gero, aurreratua besterik ez da baloratuko.

Aplikazio baten bertsio berrienak baliorik gabe utziko ditu, balorazio aldetik, hura baino zaharragoko guztiak; baldin eta izangaiak lehenagoko bertsio hartan maila aurreratua lortu ez badu behintzat, maila aurreratua baloratuko da orduan eta.

Epaimahai Kalifikatzaileak lehiaketa faseko behin-behineko emaitzak argitaratuko ditu eta izangaiek bost egun balioduneko epea izango dute egoki deritzen alegazio eta erreklamazioak aurkezteko. Edonola ere, egindako merezimenduen balorazioaren xehetasuna aipatu epearen lehen hiru egunetan eskatu beharko da, eta eskaera hori egiteak ez du bost egun balioduneko aipatu epea inolaz ere etengo. Alegazio edo erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, behin-behineko emaitzak behin-betiko bihurtuko dira automatikoki.

**Hamargarrena.—*Azken kalifikazioak eta gainditu dutenen zerrenda***

10.1. *Azken kalifikazioak*

Izangai bakoitzak lortutako azken kalifikazioa hautaketa-prozesuko oposizio- eta lehiaketa-faseetan lortutako puntu guztien batura izango da; hau da, 100 puntu gehienez.

Azken kalifikazioan berdinketarik egonez gero, lehentasun-hurrenkera hamargarren oinarri orokorreko bosgarren atalean xedatutakoaren arabera ezarriko da.

10.2. *Gainditu dutenen zerrenda*

Ariketen kalifikazioa eta merezimenduen balorazioa amaituta, Epaimahai Kalifikatzaileak gainditutakoen behin-betiko zerrenda argitaratuko du, lortutako puntuazio-hurrenkeraren arabera, bai eta onartutako pertsona plantillako karrerako funtzionario izateko proposamena ere, eta Ondarroako Udaleko Alkateari aurkeztuko dio. Erabaki hori loteslea izango da, abenduaren 1eko Euskal Enplegu Publikoaren 11/2022 Legeko 81.10 artikuluarekin bat. Gainditu dutenen zerrenda argitaratzearekin batera Epaimahai Kalifikatzaileak organoaren desegitea erabakiko du.

**Hamaikagarrena.—*Praktiketako funtzionarioaren izendapena eta praktika- eta prestakuntza-aldia***

Alkatetzaren ebazpen bidez, Epaimahai Kalifikatzaileak proposatutako izangaia praktiketako funtzionario izendatuko da eta, oinarri orokorretako hamabigarren oinarrian adierazi moduan, beharrezko agiriak aurkeztu beharko ditu. Ondarroako Udalak ofizioz bitarteko telematikoak erabiliz egiaztatutako ziurtagiriak ez dira berriz egiaztatu beharko, ezta izangaiaren espediente pertsonalean aurretik daudenak ere, halakorik balego.

Praktika- eta prestakuntza-aldian, betetzen duen lanpostuari esleitutako ordainsariak jasoko ditu izangaiak, abenduaren 1eko Euskal Enplegu Publikoaren 11/2022 Legeko 127. artikuluan xedatutakoarekin bat.

Ebazpen horrek berak, hala badagokio, hautaketa-prozedura osoa gainditu duten izangaien zerrenda onartuko du, aldi baterako lan-poltsa izan dadin, ondoren xedatutakoaren arabera.

eek: BAO-2023a199-(II-4945)

Praktika- eta prestakuntza-aldia derrigorrezkoa eta baztertzailea izango da, sei hilabeteko iraupenekoa. Praktika- eta prestakuntza-aldiaren hasiera eta amaiera datak aipatu Alkatetzaren ebazpenean zehaztuko dira eta praktika- eta prestakuntza-aldiaren jarraipena egiteaz arduratuko den pertsona izendatuko da. Pertsona hori, ahal dela, Epaimahai Kalifikatzaileko kide (titularra edo ordezkoa) izango da; betiere Ondarroako Udaleko karrerako funtzionarioa bada. Aldiz, hori ezinezkoa balitz, Ondarroako Udaleko beste karrerako funtzionario bat izendatuko da, zeinak Epaimahai Kalifikatzaileko kideentzat araudiak ezarritako espezialitate-printzipioak eskatzen dituen baldintzak bete beharko dituen. Jakintza-arlo bereko maila akademiko bera edo handiagoa duen inor ez baldin badago, izendatutako pertsonak, gutxienez, maila akademiko bera edo handiagoa izango du.

Ondarroako Udalak praktika-eta prestakuntza-aldia hasi aurretik izangaiak oinarri hauetako hirugarren oinarriko c) atalean aurreikusitako gaitasun funtzionala duela egiaztatzeko azterketa medikua egiteko eskatuko dio. Azterketa mediku hori gainditzen ez bada, izangaiak ezingo du praktika- eta prestakuntza-aldia hasi eta hautaketa-prozeduratik baztertu egingo da.

Praktika- eta prestakuntza-aldia amaitzean, jarraipena egitearen ardura duen pertsonak praktika- eta prestakuntza-aldi osoari buruzko azken txostena egingo du, hautagaiak bere eskubideari dagozkion alegazioak edo oharrak egin ahal izan ditzan. Horretarako bost egun balioduneko epea izango du. Azken txosten horretan honako alderdi hauek neurtuko dira: onargarritasuna, aztertzeko gaitasuna, erabakiak hartzeko gaitasuna, erakundearen zentzua, erantzukizun-zentzua, moldagarritasuna, lidergoa eta lanaren ezagutza.

Izangaiak praktika- eta prestakuntza-aldia gainditzen ez badu, Alkatetzaren ebazpen arrazoitu bidez, karrerako funtzionario izendatzeko eta aldi baterako lan-poltsa gisa balia daitekeen izangaien zerrendan sartzeko eskubide guztiak galduko ditu. Hori gertatuz gero edo proposatutako pertsonak lanpostuari edo hautaketa-prozesuan jarraitzeari uko egiten badio, Alkatetzak praktiketako funtzionario izendatuko du gainditutako hautagaien zerrendan lehen postuan dagoen hautagaia.

Deskribatutako egoeraren bat berriro gertatzen bada modu berean jokatuko da gainditutako hautagaien zerrenda amaitu arte.

**Hamabigarrena.—*Plazaz jabetzea eta lanpostua atxikitzea***

Praktika- eta prestakuntza-aldia gainditzen duen izangaia Alkatetzaren ebazpen bidez karrerako funtzionario izendatuko da. Horretarako hamalaugarren oinarri orokorrean eta indarrean dagoen gainerako araudian zehaztutako prozedura jarraituko da.

**Hamahirugarrena.—*Aldi baterako lan-poltsa***

Hautaketa-prozesu honen emaitzatik lan-poltsa bat osatuko da, oposizio-faseko ariketak gainditu dituzten baina lanpostuaz jabetzea lortu ez duten izangaiekin, hamaikagarren oinarri orokorreko bigarren atalean aurreikusitakoarekin bat. Lan-poltsa hori Administrazio Bereziko teknikari lanpostuetan edo antzekoetan aldi baterako beharrak betetzeko erabiliko da, eta Ondarroako Udaleko lan-poltsak sortu eta gestionatzeko irizpide nagusiak (Ondarroako Udaleko Udalbatza Osoak 2018ko ekainaren 21ean egindako bilkuran onartutakoak, edo une bakoitzean indarrean dagoen araudiak) ezarritakoaren arabera, edo une bakoitzean indarrean dagoen antzeko araudiaren arabera kudeatuko da, hurrengo paragrafoan ezarritakoari kalterik egin gabe.

Aurreko paragrafoan ezarritakoaren arabera eratutako lan-poltsa agortuta geratzen bada, eta irizpide horien arabera beste administrazioetatik lan-poltsarik jasotzen ez bada, lehentasuna izango dute derrigorrezko ariketa baztertzaile gehien gainditu dituzten pertsonek eta osatutako pertsonen zerrendek, gainditutako ariketa horietan lortutako guztizko puntuazioaren ordenaren arabera. Berdinketa gertatuz gero, oinarri orokorretako hamargarren oinarriko bosgarren ataleko lehentasun-hurrenkera aplikatuko da.

eek: BAO-2023a199-(II-4945)

Lan-poltsa hori hala eskatzen duten erakunde publikoen esku jarri ahal izango da; betiere, hautagaiek aurretiaz horretarako baimena eman badute eskabide orrian.

Lan poltsaren indarraldia hiru urtekoa izango da, onartzen denetik, eta urtero eta automatikoki luzatuko da, denbora-mugarik gabe, Alkate Udalburuak kontrakorik ebatzi ezean.

**Hamalaugarrena.—*Hizkuntza-interpretaziotik erator daitezken gatazkak argitzeko klausula***

Testu honen jatorrizkoa euskaraz idatzia dela kontuan izanik, hori hartuko da aintzat euskarazko eta gaztelaniazko bertsioen artean interpretazio-auzirik sortuz gero.

eek: BAO-2023a199-(II-4945)

I. ERANSKINA / ANEXO I

**ESKAERA ORRIA / FORMULARIO DE SOLICITUD**

*Ondarroako Udaleko administrazio bereziko eskalako,*
*goi mailako teknikarien azpieskalako Arkitekto plaza*
*Plaza de Arquitecta/o del Ayuntamiento de Ondarroa, perteneciente*
*a la escala de administración especial, subescala de técnicas/os superiores*

Garrantzitsua: eskabidea bete aurretik, kontsultatu oinarriak.
Importante: antes de cumplimentar los datos, consulte las bases.

## 1. Eskaeraren datuak / Datos de la solicitud

*Interesdunaren datuak / Datos de la persona interesada*

| | |
|---|---|
| 1. abizena / 1.er apellido | 2. abizena / 2.º apellido |
| Izena / Nombre | IFZ / NIF |
| Jaioteguna / Fecha de nacimiento | Nazionalitatea / Nacionalidad |
| Helbidea / Domicilio | P.K. / C.P. |
| Udalerria / Municipio | Telefonoa / Teléfono |
| E-maila / E-mail | |
| Sexua / Sexo<br>☐ E / M ☐ G / H ☐ Besteak / Otros/as | Hizkuntza / Idioma<br>☐ Euskara / Euskera ☐ Gaztelania / Castellano |

*Ordezkaria / Representante*

| | |
|---|---|
| 1. abizena / 1.er apellido | 2. abizena / 2.º apellido |
| Izena edo sozietatearen izena / Nombre o razón social | IFZ / NIF |
| Jaioteguna / Fecha de nacimiento | Nazionalitatea / Nacionalidad |
| Helbidea / Domicilio | P.K. / C.P. |
| Udalerria / Municipio | Telefonoa / Teléfono |
| E-maila / E-mail | |
| Jakinarazpenak nori bidali? / ¿A quién notificar?<br>☐ Interesduna / Persona interesada ☐ Ordezkaria / Representante | |

eek: BAO-2023a199-(II-4945)

## 2. Jakinarazpenen bidea aukeratzea / Seleccionar el medio de notificaciones

| | | |
|---|---|---|
| Eskabide honetatik eratorritako jakinarazpenak honela helaraztea nahi dut<br>Solicito el siguiente medio para la práctica de las notificaciones derivadas de la presente solicitud | ☐ Paperean<br>En papel | ☐ Bitarteko elektronikoak<br>Medios electrónicos |

Jakinarazpenak eskabide orri honen 1. atalean adierazitako helbidean edo e-mailera egingo dira. Datu horien aldaketa edozein momentutan eskatu ahal izango du interesatuak.

Las notificaciones se realizarán en la dirección o e-mail indicados en el apartado 1 de este impreso de solicitud. La persona interesada podrá solicitar la modificación de dichos datos en cualquier momento.

## 3. Deialdirako berariazko datuak / Datos específicos para la convocatoria

| | |
|---|---|
| Prozeduran parte hartzeko titulazioa / Títulación para concurrir en el proceso | |
| Egiaztatutako hizkuntza-eskakizuna / Perfil lingüístico acreditado | Euskarako azterketa egin nahi duzu? / ¿Desea realizar la prueba de euskara?<br>☐ Bai/Sí ☐ Ez/No |
| Zein hizkuntzatan egin nahi dituzu ariketak? / ¿En qué idioma desea realizar los ejercicios?<br>☐ Euskaraz / En euskara ☐ Gaztelaniaz / En castellano | |

## 4. Ezgaitasunaren datuak / Datos discapacidad

| | |
|---|---|
| Ezgaitasunen bat aitortuta duzu?<br>¿Tiene reconocida alguna discapacidad?<br>☐ Bai / Sí ☐ Ez/No | Moldaketaren bat behar duzu ariketak egiteko?<br>¿Precisa de alguna adaptación para realizar los ejercicios?<br>☐ Bai / Sí ☐ Ez/No |
| Eskatutako moldaketa / Adaptación solicitada | |

eek: BAO-2023a199-(II-4945)

## 5. Aitorpena / Declaración

Deialdi honetan onartua izatea eskatzen dut, eta aditzera ematen dut goian azaldutako datuak egiazkoak direla eta deialdiko oinarrietan parte hartzeko eskatzen diren baldintzak betetzen ditudala.

Solicito ser admitida/o en la convocatoria de referencia y declaro que son ciertos los datos arriba consignados, así como que reúno los requisitos de participación exigidos en las bases.

## 6. Datu pertsonalak uztea / Cesión de datos personales

Zure adostasuna eskatzen dizugu zure datu pertsonalak beste Administrazio eta Entitate Publiko batzuei lagatzeko, beren lanpostuak kubritzeko beharrak dituztenean zure lan-eskaintzak bideratu ahal izateko.

Se solicita su consentimiento para poder ceder a sus datos personales a otras Administraciones o Entes Públicos, a fin de que puedan realizarle ofertas de trabajo, en función de sus necesidades de cobertura de puestos.

☐ Bai / Sí ☐ Ez / No

## 7. Datuen kontsulta / Consulta de datos

Interesdunek eskubidea dute administrazio jardueren esku dauden edo beste edozein administraziok egin dituen dokumentuak ez aurkezteko (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28. artikulua).

Zehazki, ondorengo kontsulta hauek egingo direla informatzen zaizu:

— Nortasun datuak.

— Titulu akademikoak (unibertsitatekoak zein unibertsitatetik kanpokoak).

— Euskararen hizkuntza-eskakizunak.

— IT Txartelak.

Ondarroako Udalak agiri horiek kontsultatu edo eskatu ahal izango ditu, bai eskabidea egiten denean, bai hurrengo berrikuspenetan, non eta interesdunak ez duen horren aurka egiten.

Interesdunak aurka eginez gero, beharrezkoa da aurka egiteko arrazoiak adieraztea (Datuak Babesteari Buruzko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 21. art.). Aurka egiten dut:

Las personas interesadas tienen derecho a no aportar documentos que ya se encuentren en poder de la Administración (artículo 28 de la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas).

La documentación a recabar por el Ayuntamiento es el siguiente:

— Datos de identificación.

— Títulos académicos (universitarios y no universitarios).

— Perfiles lingüísticos de euskara.

— IT Txartelas.

El Ayuntamiento de Ondarroa podrá consultar o recabar dichos documentos tanto en el momento de la solicitud como en sucesivas revisiones, salvo que la persona interesada se opusiera a ello.

En caso de oposición, es necesario que justifique las razones de su oposición (artículo 21 del Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016. Formulo oposición:

☐ Bai / Sí ☐ Ez / No

## 8. Lehiaketa-faserako alegatutako merezimenduak / Méritos alegados para la fase de concurso

Kontuan izan oinarrien arabera behar bezala alegatu eta ziurtatzen ez diren merezimenduak ez direla aintzat hartuko.

Téngase en cuenta que no se valorarán aquellos méritos que no se aleguen y se acrediten debidamente, de acuerdo con las bases.

*Lan-esperientzia / Experiencia laboral*

| Hasiera data<br>Fecha de inicio | Amaiera data<br>Fecha de cese | Erakundearen izena<br>Nombre de la entidad | Betetako lanpostua<br>Puesto ocupado | Maila edo kategoria<br>Nivel o categoría | Lanaldia (%)<br>(%) Jornada |
|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | |
| | | | | | |
| | | | | | |

eek: BAO-2023a199-(II-4945)

| Hasiera data<br>Fecha de inicio | Amaiera data<br>Fecha de cese | Erakundearen izena<br>Nombre de la entidad | Betetako lanpostua<br>Puesto ocupado | Maila edo kategoria<br>Nivel o categoría | Lanaldia (%)<br>(%) Jornada |
|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | |
| | | | | | |
| | | | | | |
| | | | | | |
| | | | | | |
| | | | | | |
| | | | | | |
| | | | | | |

** Orri osagarriak eransten ditut / Adjunto hojas complementarias ☐ Bai / Sí ☐ Ez / No

*Formakuntza (titulu ofiziala, IT Txartelak, ikastaroak, mintegiak, etab.*
*Formación (titulaciones oficiales, IT Txartelas, cursos, seminarios, etc.)*

| Titulazioa<br>Titulación | Erakundea<br>Centro | Iraupen-orduak<br>Horas duración | Lortze-data<br>Fecha obtención |
|---|---|---|---|
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |

** Orri osagarriak eransten ditut / Adjunto hojas complementarias ☐ Bai / Sí ☐ Ez / No

Tokia eta eguna / Lugar y fecha: ..........................................................

Sinadura / Firma

**ONDARROAKO UDALAREN ALKATE-LEHENDAKARI ANDREARI**

eek: BAO-2023a199-(II-4945)

**Datu babesari buruzko informazioa**

Tratamenduaren arduraduna

Identitatea: Ondarroako Udala – IFZ P4808600C.

Helbidea: Musika plaza z/g, 48700 Ondarroa

Telefonoa: 946833672.

E-maila: orokorra@ondarroa.eus

Datuen Babesaren Ordezkaria: dbo@ondarroa.eus

*Tratamenduaren xedea*

Helburua: bitarteko izaerako langileria (Enplegu Publikorako Eskaintza) osatzeko hautatze-prozeduretan parte hartzeko prozedura administratiboen kudeaketa. Zehazki, lan-poltsak osatzeko kudeatutakoa.

Gordetzeko epeak: Kontserbazio iraunkorra: bulegoaren artxibotik ezabatu ahal izango dira, hautatze prozedurara aurkeztu ez direnen instantziak eta dokumentazioa, espedientearen amaieratik 6 hilabetera; halaber, frogak gainditu ez dituzten hautagaien dokumentazio eta azterketak, 4 urte igarotzean.

*Legitimazioa*

DBEOren 6.1.e) artikulua, tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzeko.

DBEOren 9.2.g) artikulua, funtsezko interes publikoa.

Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, enplegatu publikoaren oinarrizko estatutuaren legearen testu bategina onartzen duena.

Abenduaren 1eko 11/2022 Legea, Euskal Enplegu Publikoarena.

*Hartzaileak*

Legeak ezarritakoak eta tratamendu honen esparruan aplikagarri direnak

*Eskubideak*

Interesdunek honako eskubide hauek dituzte:

a) Ondarroako Udala interesdunen datu pertsonalak tratatzen ari den edo ez dioen baieztapena jasotzeko eskubidea.

b) Haien datu pertsonaletara sarbidea izateko, okerrak diren datuen zuzenketa eskatzeko, edo, kasuan kasu, ezabatzeko eskubidea, datuak jaso ziren beharrizanetarako jada beharrezkoak ez direnean.

c) egoera jakin batzuetan honako hauek eskatzeko:

   c.1) Datuen tratamendua mugatzea. Kasu horretan, Ondarroako Udalak erreklamazioen aurrean defendatzeko edo haiek egikaritzeko gordeko ditu soilik.

**Información adicional de protección de datos**

Responsable del tratamiento

Identidad: Ayuntamiento de Ondarroa – NIF P4808600C.

Dirección: Musika plaza z/g, 48700 Ondarroa

Teléfono: 946833672.

E-mail: orokorra@ondarroa.eus

Delegada/o de Protección de datos: dbo@ondarroa.eus

*Finalidad del tratamiento*

Finalidad: gestión de procedimientos administrativos para participar en los procedimientos selectivos de personal temporal (Oferta Pública de Empleo). En concreto, la gestionada para la formación de bolsas de trabajo.

Plazos de conservación: conservación permanente: se podrán eliminar del archivo de oficina las instancias y documentación acreditativa de las personas aspirantes que no hubieran tomado parte en el proceso de selección a los 6 meses de finalización del expediente, así como la documentación y los exámenes del personal que no haya superado las pruebas, una vez transcurridos 4 años.

*Legitimación*

Artículo 6.1.e) RGPD, tratamiento realizado en el ejercicio de poderes públicos conferidos al responsable.

Artículo 9.2.g) RGPD interés público esencial.

Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público.

Ley 11/2022, de 1 de diciembre, de Empleo Público Vasco.

*Personas destinatarias*

Las establecidas legalmente y que sean de aplicación en el ámbito de este tratamiento.

*Derechos*

Las personas afectadas tienen derecho a:

a) Obtener confirmación sobre si el Ayuntamiento de Ondarroa está tratando sus datos personales.

b) Acceder a sus datos personales, así como a solicitar la rectificación de los datos inexactos o, en su caso, solicitar la supresión cuando, entre otros motivos, los datos ya no sean necesarios para las finalidades para las cuales fueron recabadas.

c) Solicitar en determinadas circunstancias:

   c.1) La limitación del tratamiento de sus datos, en cuyo caso sólo serán conservados para el ejercicio o la defensa de reclamaciones.

eek: BAO-2023a199-(II-4945)

c.2) Datuen tratamenduaren aurka egitea. Kasu horretan Ondarroako Udalak datuak tratatzeari utziko dio, salbu eta arrazoi legitimo larriak baldin badaude edo erreklamazio posibleen defentsa edo egikaritza badago. Banakako erabaki automatizatuetarako datuen tratamenduaren aurka egiteko eskubidea ere erabil dezake.

Eskubide horiek Ondarroako Udalaren aurrean egikaritu ahal izango dira. Helbidea: Musika plaza, z/g, 48700 Ondarroa.

Eskubideen egikaritzan behar den arreta jaso ez bada, Datuen Babeserako Euskal Bulegoaren aurrean erreklamazioa jarri ahal izango da. Helbidea: Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea 71, 3. solairua. 01008 Vitoria-Gasteiz.

c.2) La oposición al tratamiento de sus datos, en cuyo caso, el Ayuntamiento de Ondarroa dejará de tratar los datos, salvo por motivos legítimos imperiosos, o el ejercicio o la defensa de posibles reclamaciones. Incluido el tratamiento de sus datos para decisiones individuales automatizadas.

Los derechos podrán ejercerse ante el Ayuntamiento de Ondarroa. Dirección: Musika plaza, z/g, 48700 Ondarroa.

Si en el ejercicio de sus derechos no ha sido debidamente atendida/o, podrá presentar una reclamación ante la Agencia Vasca de Protección de Datos. Dirección: Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea 71, 3. solairua. 01008 Vitoria-Gasteiz.

eek: BAO-2023a199-(II-4945)

ORRI OSAGARRIAK / HOJAS COMPLEMENTARIAS

**Lan-esperientzia / Experiencia laboral**

| Hasiera data<br>Fecha de inicio | Amaiera data<br>Fecha de cese | Erakundearen izena<br>Nombre de la entidad | Betetako lanpostua<br>Puesto ocupado | Maila edo kategoria<br>Nivel o categoría | Lanaldia (%)<br>(%) Jornada |
|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | |
| | | | | | |
| | | | | | |
| | | | | | |
| | | | | | |
| | | | | | |
| | | | | | |
| | | | | | |
| | | | | | |
| | | | | | |
| | | | | | |
| | | | | | |
| | | | | | |

ORRI OSAGARRIAK / HOJAS COMPLEMENTARIAS

**Formakuntza (titulu ofiziala, IT Txartelak, ikastaroak, mintegiak, etab.**
**Formación (titulaciones oficiales, IT Txartelas, cursos, seminarios, etc.)**

| Titulazioa<br>Titulación | Erakundea<br>Centro | Iraupen-orduak<br>Horas duración | Lortze-data<br>Fecha obtención |
|---|---|---|---|
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |

eek: BAO-2023a199-(II-4945)

II. ERANSKINA

**GAITEGIA**

Zortzigarren oinarri orokorreko bigarren atalean jasotakoarekin bat, izangaiek deialdiaren Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denean indarrean dagoen araudia jakin beharko dute.

1. gaia: 1978ko Espainiako Konstituzioa. I. titulua: oinarrizko eskubide eta betebeharrak.

2. gaia: 3/1979 Lege Organikoa, abenduaren 18koa, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuarena. Atariko Titulua eta I. titulua. Euskal Herriaren eskumenak.

3. gaia: 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena. I. titulua. Xedapen orokorrak.

4. gaia: 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena. II. titulua. I. kapitulua. Udalerria. Udal-barrutia.

5. gaia: 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena. II. titulua. II. kapitulua. Udal antolaketa.

6 gaia: 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena. II. titulua. III. kapitulua. Udal-eskumenak.

7. gaia: 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena. IV. titulua. Bestelako Toki Erakundeak.

8. gaia: 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena. VI. titulua. Ondasunak, jarduerak, zerbitzuak eta kontratazioa.

9. gaia: 9/2005 Foru Araua, abenduaren 16koa, Bizkaiko Toki Ogasunei buruzkoa. III. kapitulua, I. atala. Tributuak eta zuzenbide publikoko beste diru-sarrera batzuk. Arau orokorrak.

10. gaia: 2/2016 Legea, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa. III. titulua. Udal-eskumenak.

11. gaia: 2/2016 Legea, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa. IV. titulua. I. kapitulua. Udalerriaren antolaketa eta funtzionamendua.

12. gaia: 2/2016 Legea, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa. V. eta VI. tituluak. Udalerriko auzotarren betebeharrak eta eskubideak. Zerbitzu kartak; eta gobernu irekia. Gardentasuna, datu irekiak eta herritarren parte hartzea.

13. gaia: 2/2016 Legea, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa. VIII. titulua. Tokiko zerbitzu publikoen kudeaketa.

14. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. Atariko titulua eta I. titulua. Xedapen orokorrak eta prozeduran interesdun direnak.

15. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. II. titulua. Administrazio publikoen jarduera.

16. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. III. titulua. Administrazio-egintzak.

17. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. IV. titulua. Administrazio-prozedura erkideari buruzko xedapenak.

18. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. V. titulua. Egintzak administrazio-bidetik berrikustea.

19. gaia: 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena. Atariko titulua. I. eta II. kapituluak, II. kapituluko 3. sekzioko 2. azpisekzioa izan ezik.

20. gaia: 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena. Atariko titulua. III. eta IV. kapituluak. Administrazio publikoetako organoak. Zehatzeko ahalaren printzipioak. Administrazio publikoen ondare-erantzukizuna.

eek: BAO-2023a199-(II-4945)

21. gaia: 203/2021 Errege Dekretua, martxoaren 30ekoa, Sektore publikoak bitarteko elektronikoen bidez jarduteko eta funtzionatzeko Erregelamendua onartzen duena. II. eta III. tituluak, administrazio-prozedura bitarteko elektronikoen bidez. Administrazio-espediente elektronikoa.

22. gaia: 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorra. Atariko titulua eta I. titulua. Xedapen orokorrak. Dirulaguntzak emateko eta kudeatzeko prozedurak.

23. gaia: Ondarroako Udaleko diru-laguntzak arautzen dituen Ordenantza Orokorra (2018ko maiatzaren 30eko 103. zenbakiko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean).

24. gaia: 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuarena. II. titulua. I. kapitulua. Administrazio publikoetako langileak. Langile-motak.

25. gaia: 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena. Atariko titulua.

26. gaia: 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa. II. eta III. tituluak. Datuak babesteko printzipioak. Pertsonen eskubideak.

27. gaia: 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa. I. titulua. III. kapitulua. Jarduera publikoaren gardentasuna. Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea.

28. gaia: 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoa. I. eta III: kapituluak. Xedea, aplikazio-eremua eta definizioak. Eskubideak eta betebeharrak.

29. gaia: 4/1990 Legea, maiatzaren 31koa, Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzkoa.

30. gaia: 128/2019 Dekretua, uztailaren 30ekoa, zeinaren bidez behin betiko onesten baitira Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak. I. eranskineko I. kapitulua. Aplikatzeko arauak. Xedea eta izaera.

31. gaia: 128/2019 Dekretua, uztailaren 30ekoa, zeinaren bidez behin betiko onesten baitira Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak. IV. eranskina. Bizitegi kuantifikazioa.

32. gaia: 1/2006 Legea, ekainaren 23koa, Urarena. I. kapitulua. Arau orokorrak.

33. gaia: 46/2020 Dekretua, martxoaren 24koa, lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituena.

34. gaia: 43/2007 Dekretua, martxoaren 13koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Itsasertza Babestu eta Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana behin betiko onartzen duena. I. eta II. tituluak. Xedapen orokorrak. Kostaldeen eta itsasadarren ertzen antolamendua.

35. gaia: 22/1988 Legea, uztailaren 28koa, Kostaldeei buruzkoa. Atariko titulua, I. eta II. tituluak. Legearen xedea eta helburuak. Itsas-lehorreko jabari publikoko ondasunak. Itsasertzaren ondoko lurren gaineko jabetzaren mugak, itsas-lehorreko jabari publikoa babesteko arrazoiengatik.

36. gaia: Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala. Gai orokorrak: antolamendu-eremua eta terminologia-definizioak. Ertzak zonifikatzea eta izapidetzea. Araudi espezifikoa, osagai hidraulikoaren eta hirigintzakoaren arabera. Lurralde Plan Sektorialak Ondarroako hirigintza-antolamenduan duen eragina.

37. gaia: 879/2014 Errege Dekretua, urriaren 10ekoa, Kostaldeen Erregelamendu orokorra onartzen duena.

38. gaia: 2/2018 Legea, ekainaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Portuena eta Itsas Garraioena. I. eta II. kapituluak. Xedapen orokorrak. Portuen plangintza, antolamendua, eraikuntza eta mantentze zerbitzua.

eek: BAO-2023a199-(II-4945)

39. gaia: Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala. Xedapen nagusiak. Antolamendu-kategoriak.

40. gaia: 90/2014 Dekretua, ekainaren 3koa, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzearen gainekoa.

41. gaia: 5/2021 Foru Araua, urriaren 20koa, Bizkaiko errepideei buruzkoa. III. titulua. Errepidearen erabilera eta babesa. Eragina hirigintza-antolamenduan.

42. gaia: 4/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoa. I. eta V. kapituluak. Xedapen orokorrak. Lurzoruaren kalitatearen arloko prozedurak. Eragina hirigintza antolamenduan, lizentzietan eta baimenetan.

43. gaia: 6/2019 Legea, maiatzaren 9koa, Euskal Kultura Ondarearena. I., V. eta VI. tituluak. Xedapen orokorrak. Kultura ondasunen babes araubide erkidea. Kultura ondasunak babesteko araubide espezifikoa, duten babes mailaren arabera.

44. gaia: 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoa. Atariko titulua, I. tituluko I. kapitulua eta III. tituluko II. eta kapituluak. Xedapen orokorrak. Ebaluazio akustikoa: zarata-mapak eta ekintza-planak. Zarata-mapak. Kalitate akustikoko helburuak eta gehienezko immisio-balioak. Etorkizuneko hirigintza-garapena. Babes akustiko bereziko eremuak, egoera akustiko bereziko eremua, lehentasunezko ekintza-eremuak, eta haiei lotutako planak.

45. gaia: 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, ingurumen-ebaluazioari buruzkoa.

46. gaia: 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena.

47. gaia: 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena.

48. gaia: 10/2015 Legea, abenduaren 23koa, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jarduerena. II. tituluko II. kapitulua eta III. tituluko I. eta II. kapituluak. Ikuskizun eta jolas jarduerei aplikatu beharreko araubidea. Ikuskizunek eta lokalek bete beharreko eskakizunak eta baldintzak. Administrazioak esku hartzea. Establezimendu publikoak irekitzea. Aldi bateko instalazioak.

49. gaia: 17/2019 Dekretua, otsailaren 5ekoa, jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duena. X. kapitulua. Ikuskizunak eta jolas-jarduerak egiteko gaikuntza-tituluak.

50. gaia: 38/1999 Legea, azaroaren 5ekoa, Eraikuntzaren Antolamenduari buruzkoa. I. eta II. kapituluak. Xedapen orokorrak. Eraikuntzaren eskakizun teknikoak eta administratiboak.

51. gaia: 38/1999 Legea, azaroaren 5ekoa, Eraikuntzaren Antolamenduari buruzkoa. IV. kapitulua. Erantzukizunak eta bermeak.

52. gaia: Eraikuntzaren Kode Teknikoa. I. Zatia. Xedapen Orokorrak. Ezaugarri tekniko eta administratiboak. Oinarrizko eskakizunak.

53. gaia: Eraikuntzaren Kode Teknikoa. I. zatia. I., II. eta III. eranskinak.

54. gaia: Eraikuntzaren Kode Teknikoa. Oinarrizko dokumentua. Segurtasuna suteetan.

55. gaia: Eraikuntzaren Kode Teknikoa. Oinarrizko dokumentua. Erabilera eta irisgarritasunaren segurtasuna.

56. gaia: Eraikuntzaren Kode Teknikoa. Oinarrizko dokumentua. Energia aurreztea.

57. gaia: 117/2018 Dekretua, uztailaren 24koa, Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen ikuskapen teknikoari buruzkoa. I., II. eta V. kapituluak. Xedapen orokorrak. Eraikinen ikuskapen teknikoa. Erabilera eta mantentze-plana.

58. gaia: 1627/1997 Errege Dekretua, urriaren 24koa, eraikuntza-obretako gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzen dituena. I. eta II. kapituluak. Xedapen orokorrak eta segurtasun- eta osasun-xedapen espezifikoak obren proiektu- eta egikaritze-faseetan.

eek: BAO-2023a199-(II-4945)

59. gaia: 317/2002 Dekretua, abenduaren 30ekoa, ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzkoa. I. kapitulua, I. eta II. eranskinak. Xedapen orokorrak. Birgaitzeko esku-hartzeak. Eraikuntza-unitate bat hirigintzari dagokionez egokia izan dadin egin behar diren obrak.

60. gaia: 80/2022 Dekretua, ekainaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoan etxebizitzen eta zuzkidura-bizitokien gutxieneko bizigarritasun-baldintzak eta diseinu-arauak arautzen dituena. I. eta II. eranskinak. Etxebizitzen eta zuzkidura-bizitokien gutxieneko bizigarritasun-baldintzak. Babes publikoko etxebizitzak eta zuzkidura-bizitokiak diseinatzeko arauak.

61. gaia: 80/2022 Dekretua, ekainaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoan etxebizitzen eta zuzkidura-bizitokien gutxieneko bizigarritasun-baldintzak eta diseinu-arauak arautzen dituena. III. eta IV. eranskinak. Proiektuen edukia. Definizioak.

62. gaia: Bizigarritasuna. Aplikazio praktikorako gida. Eusko Jaurlaritzak 2023ko uztailaren 26an eguneratua. 80/2022 Dekretuan, ekainaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoan etxebizitzen eta zuzkidura-bizitokien gutxieneko bizigarritasun-baldintzak eta diseinu-arauak arautzen dituenean oinarritua.

63. gaia: 112/2012 Dekretua, ekainaren 26koa, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzeko dena. 1, 2, 3, 5 eta 6 artikuluak. Helburua eta xedeak. Definizioak. Aplikazio-eremua. Fidantza. Obra handietan sortutako eraikuntza- eta eraispen-hondakinak eta -materialak behar bezala kudeatu direla egiaztatzea.

64. gaia: 20/1997 Legea, abenduaren 4koa, Irisgarritasuna Sustatzekoa. I. eta III. titulua. Irisgarritasuna bermatzeko neurriak. Kontrol-neurriak.

65. gaia: 68/2000 Dekretua, apirilaren 11koa, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituena. II. eranskina. Hiri-inguruneko irisgarritasun-baldintza teknikoak: oinezkoentzako ibilbideak, parkeak, lorategiak, plazak eta espazio libre publikoak, eskailerak, arrapalak, eskubandak, aparkalekuak eta komun publikoak.

66. gaia: 68/2000 Dekretua, apirilaren 11koa, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituena. III. eranskina. Eraikinetako irisgarritasun-baldintza teknikoak: kanpoko espazioak, eraikinaren barrualderako sarbidea, barne-komunikazioak eta aparkalekuak.

67. gaia: 68/2000 Dekretua, apirilaren 11koa, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituena. III. eranskina eta V. eranskinak. Eraikinetako irisgarritasun-baldintza teknikoak: egoitza-eraikinak. Eraberritze-, zabalkuntza- edo aldaketa-obrak urbanizazio eta eraikinetan.

68. gaia: 7/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duena. Atariko titulua eta I. tituluko I. eta II. kapitulua. Xedapen orokorrak. Herritarren eskubide eta betebehar konstituzionalen berdintasunaren oinarrizko baldintzak. Herritarren oinarrizko estatutua. Hirigintza-jarduerako ekimenaren eta parte-hartzearen oinarrizko estatutua.

69. gaia: 7/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duena. I. titulua. III. eta IV. kapituluak. Herritarren eskubide eta betebehar konstituzionalen berdintasunaren oinarrizko baldintzak. Lurzoruaren jabetzaren estatutu juridikoa. Hirigintza-jarduketak sustatzeko oinarrizko estatutua.

70. gaia: 7/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duena. II. titulua. Lurzoruaren araubidearen oinarriak, prozedurazko erregela erkideak eta arau zibilak.

71. gaia: 7/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duena. V. eta VI. tituluak. Balorazioak. Nahitaezko desjabetzea eta ondare-erantzukizuna.

eek: BAO-2023a199-(II-4945)

72. gaia: 1492/2011 Errege Dekretua, urriaren 24koa, Lurzoruaren Legearen Balorazioen Erregelamendua onartzen duena.

73. gaia: 123/2012 Dekretua, uztailaren 3koa, hirigintzako estandarrei buruzkoa.

74. gaia: 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa. I. titulua. Xedapen eta printzipio orokorrak.

75. gaia: 105/2008 Dekretua, ekainaren 3koa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzkoa.

76. gaia: 390/2021 Errege Dekretua, ekainaren 1ekoa, Eraikinen eraginkortasun energetikoa ziurtatzeko oinarrizko prozedura onartzen duena.

77. gaia: 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora. Atariko titulua. Xedapen orokorrak.

78. gaia: 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora. I. liburua. I. eta III. tituluak. Sektore publikoaren kontratazioaren konfigurazio orokorra eta kontratuen egiturazko elementuak. Sektore publikoko kontratazioari buruzko xedapen orokorrak. Xedea, lizitaziorako oinarrizko aurrekontua, balio zenbatetsia, kontratuaren prezioa eta berrikuspena.

79. gaia: 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora. II. liburua. I. tituluko I. kapituluko I. atala eta II. ataleko I. azpiatala. Administrazio publikoen kontratuak. Xedapen orokorrak. Administrazio publikoen kontratazioari buruzko jarduketak. Herri-administrazioen kontratuak prestatzea. Herri-administrazioen kontratuak esleitzea. Arau orokorrak.

80. gaia: Ondarroa udalerriko udal herri-bide eta baso-bideen erabilera ibilgailu astunekin arautzkeo udal ordenantzaren behin-betiko onespena (2011ko maiatzaren 24ko 98. zenbakiko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean).

81. gaia: Ondarroako Ingurumeneko Udal Ordenantza aldaketaren behin-betiko onespena eta testu kontsolitaduaren argitalpena (2018ko martxoaren 5eko 45. zenbakiko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean).

82. gaia: Irisgarritasun baldintzak hobetzeari buruzko udal ordenantza (2015eko ekainaren 12ko 111 zenbakiko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean).

83. gaia: Ondarroako Udalaren udal-plangintzako aholku batzordea jarduteko araudia (2015eko uztailaren 23ko 140 zenbakiko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean).

84. gaia: Ondarroako udalerriko zuhaitz eta berdeguneei buruzko ordenantza (2003ko ekainaren 17ko 114 zenbakiko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean).

85. gaia: Ondarroako udalerrian animaliak eduki eta babesteko ordenantza (2019ko abuztuaren 16ko 155 zenbakiko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean).

86. gaia: Ondarroako Herri-gune Historikoa Birgaitzeko Plan Berezia. II. titulua, II. kapitulua. Erabileren arauak. Erabileren arau bereziak.

87. gaia: Ondarroako Herri-gune Historikoa Birgaitzeko Plan Berezia. III. titulua. Hirigune historikoan esku-hartzeari buruz.

88. gaia: Ondarroako Herri-gune Historikoa Birgaitzeko Plan Berezia. IV. titulua. Ondarea babesteko arauak.

89. gaia: Ondarroako Herri-gune Historikoa Birgaitzeko Plan Berezia. V. titulua. Eraikuntza arauak.

90. gaia: Ondarroako arau subsidiarioei buruzko hirigintzako araudia (1997ko abuztuaren 18ko 156. zenbakiko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean).

eek: BAO-2023a199-(II-4945)